



HERNANIKO UDALA

Iragarkia

Kirol jardueretarako dirulaguntzak eskuratzeko oinarri bereziak.

Hernaniko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten kirol Klubei eta Elkarteei zuzendutako aurrekontuko partidak biltzen ditu.

Kirol eremuan lan egiten duten entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, eta aurrekontuan bildutako ekintzen publizitatea bermatzeko, ondoko oinarriak adierazten dira:

1. Objektua.

Deialdi honen objektua Hernanin kokatutako irabazi asmorik ez duten kirol klubei zein entitateei zuzendutako dirulaguntzen kontzesioa arautzea da. Dirulaguntzak Hernaniko Udalaren Kirol programen helburuekin bat datozen 2021-2022 denboraldiko hainbat kirol programa eta jarduera antolatzeagatik emango dira, horiek izandako proiektioagatik zein interesagatik.

Oinarri hauek dirulaguntzak emateko Udal Araudiaren 9. artikulua araberakoak dira.

2. Aurrekontua eta programa.

Oinarri hauen objektu diren ohiko dirulaguntzetarako bideratutako kreditua 61.000,00 eurokoa da, eta 2022ko Hernaniko Udaleko aurrekontuko 1 1 02.481.01.341.00 2022 (4559) DIRULAGUNTZAK: KIROLO EKINTZAK eta 1 02.481.04.341.00 2022 (4571) DIRULAGUNTZAK: KIROLO EKINTZAK EZOHIKOAK partidari dagokionez kontabilizatuko da.

3. Onuradunak.

Dirulaguntzak eskuratzeko aukera izango dute Hernanin kokatutako irabazi asmorik gabeko entitate juridiko pribatuek. Horien jarduerak deialdi honetan zehaztutako eremuetan burutuak izan behar dute.



Kasu zehatzetan, eta Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak hala zehaztutakoan, Hernanitik kanpo kokatutako entitateek ere izango dute dirulaguntzak eskuratzeko aukera, betiere, antolatutako jardueren zati handi bat udalerrian bertan egin denean edota udalerrientzat interesgarriak direla ikusitakoan.

Entitateak indarrean dagoen araudiaren arabera eraturakoa izan behar du, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkartearen eta Entitateen Erregistro Orokorrean, zein Elkartearen Hernaniko Udal Erregistroan izena emanda egon beharko du.

Hori dela eta, irabazi asmorik gabeko entitateak honakoak izango dira: elkartearen helburuarekin bat datozen jarduerak antolatzen eta horien irabaziaz elkartearen helburuetarako inbertitzen dituenak.

4. Kanporatzeak.

Deialdi honetako aplikazio eremutik kanpo geratuko dira ondoko jarduerak:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroak 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako gertaeraren bat jasotzen dutenak.

b) Hernaniko Udaleko jarduera eremuekin erlazio zuzenik ez duten helburuak edota izaera dituztenak.

c) Edozein motako zerga-betebeharrak betetzen ez dituzten entitateek eta elkarteez aurkeztutako eskaerak, herri izaera eta gizarte segurantza dutenak barne. Egiatzipenak administrazioak egingo ditu.

d) Udalak hala eskatuta, aurreko deialdietan emandako dirulaguntzei buruzko edozein dokumentazio oraindik eman gabe duten jarduera edota programa bati buruzko eskaerak ez dira kontuan izango.

e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzen ez dutenak.

5. Eskabideak

Dirulaguntzak jasotzeko aukera izan nahi bada, ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:



1. Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera. Hernaniko Kiroldegiaren bulegoetan eskura daiteke goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:30era, astelehenetik ostiralera.
2. Eskariekin batera ondoko dokumentazio hau aurkeztu behar da.
 - a) Klubaren estatutuak, duela gutxi eratutakoa bada.
 - b) Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) dokumentuaren fotokopia.
 - c) Elkarteen Hernaniko Udal Erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria.
 - d) Entitate eskatzailearen curriculum, ondokoa zehaztuta:
 1. Talde kopurua, entrenatzaileak, kirol modalitate, sexua, egutegi ofizialak eta bakoitzaren kategoria.
 2. Abian den urteko Hernaniko kirolari edo federatu kopurua, sexua eta horien zerrenda; betiere klubeko kide direnak eta dagokion federazioak emanda.
 3. Klubeko kideen aurreko denboraldiko kirol balantzea (sailkapenak, lehiaketak, aukeratuak).
 4. 2019-2020ko ekitaldiko balantze ekonomikoa deskribapen zehatzarekin, eta diru sarreren zein gastuen justifikazioa.(1. eranskina)
 5. Herritar guztiei zuzendutako promozio kirol jardueren antolaketa. Jarduera bakoitzaren dokumentazioa atxiki behar da.
 6. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak eta hartutako erabakiak.
 - e) Hizkuntz irizpideen betetze maila adierazten duen agiria (2. eranskina) beteta.



Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a.-Diruz lagundutako jarduera adin gabekoei edo gazteei zuzendua denean (entrenamenduak, aldageletako tertuliak, aholkuak, material idatzia, oharrak...) jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b.- Herritar orori zuzendutako idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

c.-Herritar orori zuzendutako ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpen, megafonia..) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

d.- Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

* Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.
- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.
- Beste modu batzuk:
 - Osagai batzuk euskara hutsean emanaz: kopuruak, toki-izenak, datak.
- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanaz

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

f) Entitate eskatzaileak irekitako kontu baten titulartasunaren akreditazioa.

g) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekin egunean dituela ziurtatzen duen agiria, eta dirulaguntza eskabidean baimendu ezean, baita Ogasunarekin egunean dituela ziurtatzen duen agiria ere.



h) Gastu eta sarreren zerrenda zenbakitua eta sailkatua, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zerrendan zehaztu behar dira: faktura zenbakia, faktura data, hartzekoduna, gastu azalpena, zenbatekoa, eta ordainketa data.

Ez dira inondik inora diruz laguntzeko modukoak izango banku kontuetako interes zordunak, gainkarga nahiz isun administratibo eta penalak, eta auzi prozeduretako gastuak. Tributuak gastu subentzionarioak dira entitate onuradunak benetan ordaintzen dituenen. Inoiz ez dira lagun daitezkeen gastutzat joko zeharkako zergak (Bez zerga...) -berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak izanez gero- edo norberaren errentaren gaineko zergak.

Soilik, fakturarekin edota ziurtagiriekin justifikatutako gastuak hartuko dira kontuan.

Pertsona interesatuek hala deklaritzen badute eta Hernaniko Udalak Oinarri hauetan eskatutako dokumentuak berak dituela ikusten badu, ez da ezertxo ere aurkeztu beharrik izango.

Edozein kasutan, eskatutako dokumentazioaz gain, Udalak beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango du, aurkeztutako jarduera baloratzeko.

6. Epea.

Aurkezteko azken eguna: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia agertzen den unetik 15 egun natural. Dokumentazioa eskuratzea, informazioa eta eskaeren aurkezpena: Hernaniko Udal Kiroldegiko bulegoetan, edota informazioa www.hernani.eus web orrian ere eskura daiteke.

Entitate eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osorik ez dagoenean edota Oinarri hauetan exijitutako baldintzak betetzen ez dituenen, akats formalak zuzentzeko edota beharrezko dokumentuak aurkezteko hamar egun baliodun emango zaizkio. Hala egiten ez badu, eskaera bertan behera geratzen dela jakinaraziko zaio, eta eskaera tramite gehiagorik gabe artxibatuko dute indarrean dagoen araudiaren arabera.

Ale bat entitate eskatzailearen eskuetan geratuko da, eta bestea Hernaniko Udaleko Sarrera Erregistroan bertan.

7. Aurkeztutako dokumentazioren ziurtagiria.

Kirol zuzendariak eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren ziurtagiria egingo du proposamena osatzeko. Ziurtagiri gabe ez dira baloratuko hurrengo puntuko irizpideak.

8. Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.



Ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopurua. Kopuru hori zati Klubei edo kirol-taldeei esleitutako puntuak egingo da (jarraian jasotako balorazio-adierazleen arabera), modu horretan puntu baten balio ekonomikoa kalkulatu da. Balio ekonomik horrek bider kirol-klubari esleitutako puntuak zehaztuko du atal bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa. Atal guztien baturak xedatuko du Klub bakoitzari eman beharreko zenbateko osoa.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko; gutxienez 8 federazio-lizentzia beharko dira.

Ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopurua, honako ehunekoetan banatuko da, atalaren arabera:

1. atala diruaren % 45.
2. atala diruaren % 25.
3. atala diruaren % 10.
4. atala diruaren % 10.
5. atala diruaren % 10.

1. atala:

— Lizentziak: Mutilak puntu 1, neskak 2 puntu.

— Txapelketa ofizialak: Puntu 1.

— Maila:

Gipuzkoakoa eta Euskadikoa: puntu bat.

Espainiakoa: 2 puntu.

Nazioartekoa: 3 puntu.

— Entrenatzaileak:

Lizentziatuak eta III. mailako entrenatzailea: 5 puntu.

II. mailako entrenatzailea edo autonomikoa: 3 puntu.

I mailako entrenatzailea edo eskualdekkoa: 2 puntu.

Titulurik gabeko entrenatzaile bat: 0 puntu.

Puntuatzeko nahitaezkoa da fitxa aurkeztea.

Entrenatzaileen eta kirolarien kalkuluak aparte egingo dira.

Txapelketa ofizialetan parte hartzen ez duten kirolei kontuan hartuko zaien lizentzia kopurua lizentzia gehien dituen klubaren kopuru berbera izango da, betiere klub horrek baino lizentzia gehiago badituzte.

2. atala: Garraioa.



<u>Garraioa arloa</u>	<u>Txapelketako ofizialak</u>	<u>Besteak</u>
Gipuzkoa	1 puntu	0,5 puntu
Euskal Herria	3 puntu	1 puntu
Espainia	5 puntu	2 puntu
Nazioartea	7 puntu	3 puntu

3. atala: Guztientzako kirola eta promoziozko jarduerak antolatzea.

— Urtez urte antolatutakoa: 10 puntu.

— Unean une antolatutakoa: 5 puntu.

— Minusbaliatu fisiko nahiz psikikoei zuzendutako jarduerak antolatzea: 15 puntu.

— Euskal herriko patrimonioa diren jarduerak badira: 15 puntu.

Kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren arabera euskal patrimonioa direnak, hau da, pilota modalitate guztiak, arrauna, eta boloak.

4. atala: Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak eta hartutako erabakiak. Halaber egungo egoera ere baloratuko da.

2022ko abuztuaren 31 arte egindako jarduerak sartuko dira. 3. eranskinean daude Udalak erabiliko dituen irizpideak berdintasuna baloratzeko.

5. atala: Udalak zuzenean antolatutako ekintzetan laguntzea.

Klub guztiak gutxienezko kopurua jasoko dute. Aipatutako kopurua kobratu ahal izateko, aurkeztutako datuekin gutxienez 50 puntu lortu behar dituzte. Eman beharreko kopuruak inoiz ez du baimendutako gastua gaindituko.

Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol Batzordeak eskaerak aztertu ostean, eta Kirol Zuzendaritzak emititutako txostena baloratuta, dirulaguntzak nori eman aukeratuko du. Horretarako eskatzaileen eta kopuruen arteko erlazioa adierazi behar da, hori gauzatzeko erabilitako ebaluazio irizpideak zehaztuta.

9. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzen guztizko kopuruak, bakarrik edota beste diru laguntzekin zein beste Administrazio Publikoen edo Erakunde publikoen zein pribatuen laguntzekin batera, ez du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua (defizita) gaindituko. Ebaluazio irizpideak



baloratu ostean, ohiko diru-laguntzei dagokienez, klub bakoitzari ordainduko zaio puntu bakoitzak duen balioa klubak lortu dituen puntuekin biderkatuta lortzen den diru kopurua.

Eskaerak ebazteko eskumena duen organoa Hernaniko Alkatetza da.

Ebazpena, kasu guztietan, idatzita eta arrazoi guztiak azalduta jakinaraziko da, eta ebazpena positiboa bada, dirulaguntza kopurua, ordainketa modua, justifikazio forma (fakturen kopiak) eta gainerako baldintzak zein Oinarri hauetan exijitutako guztia zehaztuko da.

Ordainketa modua: Ebazpena jakinarazi ostean % 100.

10. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen pertsonak edo erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

Horretaz gain, proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexistak bermatuko da. Bereziki pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da. Lagungarri gisa Udaleko web orrian zintzilikatuta dagoen gida: Komunikazio berdinzalerako jarraibideen gida.

11. Ebazpen epea eta administrazioaren isiltasuna.

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Ebazpen adierazia eman gabe epe hori amaitu ostean, eskaera atzera botako da.

Emandako dirulaguntzak Entitateko iragarki-taulan argitaratuko dira, ebazpenaren zati bat Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta. Emandako laguntzek, banaka aztertuta, 3.000 euro baino gutxiagokoak badira, nahikoa izango da Kiroldegiko iragarki-taulan argitaratuta.

Eskatutako dirulaguntzak eman direla edota ez adierazten duen ebazpen adieraziarekin amaitzen da administrazio-bidea, eta jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epea egongo da ebazpen horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Nahi izanez gero, eta



administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen, birjartzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, ebatzi zuen organo beraren aurrean.

12. Ez betetzea.

Oinarri honetan zehaztutako baldintzak betetzen ez badira diru-laguntzen berrikusketa egingo da, eta hala dagokionean, emandako kopurua ezeztatuko edota murriztuko da, edota jasotako kopuru osoa zein zati bat itzuli beharko da, dirulaguntzei buruzko udal araudian zehaztutako moduan.

Dirulaguntzak itzultzeko prozesua ofizioz hasiko da, laguntza edota dirulaguntza eman duen organoak eskatuta. Prozesuaren tramitazioan interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

13. Interpretazioa.

Hernaniko Udaleko Kirol Sailak urtean zehar jarraipena egin dezake, aurkeztutako dokumentazioan jasotakoa egiazkoa dela ziurtatzeko.

Oinarri hauen interpretazioan zein garapenean sor daitezkeen zalantzak Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak argituko ditu.



2021-2022 denboraldiko kirol ekintzetarako dirulaguntza eskabidea

Espediente zenbakia :

Erakundearen izena :		
Helbidea :		
Herria :	Posta Kodea :	IFK :
Agiri-aurrezlearen izen-abizenak :		
NAN :	Helbidea :	Herria:
Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak :		
NAN :	Helbidea :	Herria :
Posta Kodea	Tel.:	e-mail:
<p>BAIMENAK. Baimena ematen diot espresuki HERNANIKO UDALari, Foru-Ogasunetik beharrezkoak diren hurrengo datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan ohiko kirol jarduera egiteko dirulaguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla.</p>		
<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>
BAI		EZ
Entitatearen legezko ordezkoaren izen-abizenak :		
NAN :		
Sinadura :		

Hernani, 2022ko en

Aurrezlearen sinadura



AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA : (X jar ezazu)

Eskabide orria sinatuta /

Entitate eskatzailearen estatutuak (eratu berria bada)

Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda dagoenaren ziurtagiria (hala izanez gero)

Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia

Curriculumuma entitate eskatzailearen curriculumuma gutxieneko datuekin:

1- Talde kopurua, kirol modalitate eta kategoria bakoitzean.

2. Abian den urteko Hernaniko kirolari edo federatu kopurua eta horien zerrenda; klubeko kide direnak eta dagokion federazioak emanda

3. Entrenatzaile edota monitore kopurua eta zerrenda.

4. Klubeko kideen aurreko denboraldiko kirol balantzea (sailkapenak, egutegiak, txapelketak, hautetsiak)

5. 2019-2020 ekitaldiko balantze ekonomikoa deskribapen zehatzarekin eta diru sarreren zein gastuen justifikazioa (1. eranskina)

6. Sustapenerako kirol jardueren antolaketa herritar guztiei zuzendua. Jarduera bakoitzaren dokumentazioa atxiki behar da.

7.- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun sustatzeko bereziki antolatutako jarduerak eta erabakiak

8.- Kirol klubak bete beharreko hizkuntza irizpideen betetze maila adierazten duen agiria (2. eranskina) (2. eranskina)

- Instituzio, erakunde eta abarrei egindako dirulaguntza eskaeren edota jasotako kopuruaren zinpeko aitordena**
- Eskatzailearen kontu korrontearen jabetza ziurtatzen duen agiria.**
- Zerga betebeharrak, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin eginean dituela ziurtatzen duen agiria**



1. ERANSKANEXO

GASTU ETA SARREREN BALANTZE ZEHATZA

GASTUAK GUZTIRA (€)	
Langile gastuak	
Kirol lizentziak	
Entrenatzaileei ordainketak	
Arbitrajea ordainketak	
Profesionalak (mediku, masajista...)	
Kirol materiala	
Garraioa	
Aseguroak	
Bestelakoak	
SARRERAK GUZTIRA (€)	
Babesleak eta Publizitatea	
Sarrerak	
Beste dirulaguntzak	
Bestelakoak	
DEFIZITA (GASTUAK-SARRERAK)	



ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- **Gastu eta sarreraren zerrenda zenbakitua eta sailkatua, goian zehaztutako kontzeptuen arabera antolatuta. Zerrendan zehaztu behar dira: faktura zenbakia, faktura data, hartzekoduna, gastu azalpena, zenbatekoa, eta ordainketa data.**
- **Fakturen kopiak, kontzeptuka sailkatuta: soilik, fakturarekin edota ziurtagiriekin justifikatutako gastuak hartuko dira kontuan.**
- **Jasotako beste diru-laguntzen zehaztapena. Ebazpenen kopiak.**

2. ERANSKINA / ANEXO 2

KIROL KLUBAK BETE BEHARREKO HIZKUNTZA IRIZPIDEEN BETETZE MAILA ADIERAZTEN DUEN AGIRIA

Kirol klubaren izena

Lehendakariaren izen-abizenak

Kirol Klubaren lehendakari naizen aldetik, **AITORTZEN DUT klubaren HIZKUNTZA IRIZPIDEEN betetze maila ondorengo dela**

1.- Adin gabekoekin eta gazteekin ditugun harremanen hizkuntza

- Ahozkoa: entrenamenduak, aldageletako tertuliak eta aholkuak... euskaraz dira? /
 beti gehienetan inoiz ez
- Material idatzia, oharrak... euskaraz dira?
 beti gehienetan inoiz ez



2.- Herritar orekin ditugun harremanen hizkuntza

- Ahozkoan (megafonian, jardueraren aurkezpenean...) euskara lehentasunez erabiltzen da?
 beti gehienetan inoiz ez
- Idatzizkoetan (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskara lehentasunez erabiltzen da? /
 beti gehienetan inoiz ez

3.- Udalarekin ditugun harremanen hizkuntza

- Ahoz
 beti edo gehienetan euskaraz
 batzuetan euskaraz, besteetan gaztelaniaz
 beti edo gehienetan gaztelaniaz
- Idatziz
 beti edo gehienetan euskaraz
 batzuetan euskaraz, besteetan gaztelaniaz
 beti edo gehienetan gaztelaniaz

Agiri honekin batera entregatu behar dira hizkuntza irizpideak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa (adin gabekoei, gazteei nahiz gurasoei zuzendutako oharra, jarduerak iragartzeko kartelak eta egitarauak...)



3. ERANSKINA

BERDINTASUNA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

MAILAKAKETA

A: Neurri edo proiektu estrukturalak, eta arlo ezberdinetan eragiten duten neurriak. Neurri hauek gainera, ekintza positiboekin batera jarri daitezke abian.

B: Unean-uneke ekintzak eta ekintza positiboak.

C: Arlo bakar batean egiten den ekintza, eta berez berdintasuna sustatzeko egitura-aldaketarik eragiten ez duena. Hau da, eskaintzaren kalitatea hobetzea, partaidetza handitzea edo kirol uztea ekiditea ez da ekintza honen ondorio zuzena izango.

D: Ez ditu baldintzak betetzen berdintasun arloan dirulaguntza jasotzeko. Berez oinarritzkoak diren baliabideak ekintza positibotzat hartzea eta horrela aurkeztea.

MAILA / ARLOA	A	B	C	D
Antolakuntza eta funtzionamen dua	-Emakumeak zuzendaritzan (emakumeen ikuspegia sartzeko asmoa).		-Emakumeak zuzendaritzan.	
Aurrekontuar en kudeaketa	-Maila bereko entrenatzaile emakume eta gizonei berdin ordaindu. -Inbertsioak edo erosketak egiteko orduan sexua kontuan hartu.			
Kirol proiektua	-Emakume entrenatzailea. -Entrenatzeko baliabideak hobetu	-Eskoletan neskak erakartzeko kanpaina.	-Entrenatzailea emakumea da.	-Entrenatzailea dute. -Eskaintza mistoa da.



	(ordutegiak, materiala, etab.).			
Prestakuntza proiektua	-Hautatutako kirolariei dirulaguntza entrenatzaile prestakuntza egiteko eta elkartarekin konpromezua hartzeko.			
Komunikazioa	-Emakume kirolariak ere bisibilizatu herrian, eskoletan etab. -Komunikazio ez sexista karteletan, web orrian, etab. -	-Emakume kirolarien eguna (kirol horretakoa).	Hizkuntza ez sexista publizitatean.	

4. eranskina

Bankuko kontu korrentearen datuak

Entitate eskatzailearen izena :
IFK
Entitatearen helbidea
Herria :
PK



Probintzia :

Kontu korrontea

Titularra :

Finantza erakundea :

Kontu korronte zenbakia (20 digitu):

Hernani, 2022ko en
Aurkezlearen sinadura



Hernaniko
Udala

1. PUNTUA: LIZENTZIAK

	Alebinak		infantilak		kadeteak		jubenilak		juniorrak		seniorrak	
	Txapelketa		Txapelketa		Txapelketa		Txapelketa		Txapelketa		Txapelketa	
	Ofici al bai	ofici al ez	Ofici al bai	ofici al ez	Ofici al bai	ofici al ez	Ofici al bai	ofici al ez	Ofici al bai	ofici al ez	Ofici al bai	oficial ez
Neskak												
Mutilak												

MAILA

GIPUZKOA EUSKADI												
Espainia												
Nazioartekoa												

ALEBINAK: errendimendukoak bakarrik jarri behar dira

	III maila	II maila	I maila	Titulurik gabekoak
Entrenatzaileak				

2. PUNTUA: GARRAIOA

TALDEA	Partiduetara joaten diren jokalaria kopurua	Etxetik kanpo jokatutako partiduen kopurua	Nora / Donde			
			Gipuzk oa	Euskal Herria	Espain ia	Nazioar.



Lerro bakoitzean talde bat

3. PUNTUA: GUZTIENTZAKO KIROLA ETA PROMOZIOZKO JARDUERAK

	URTEZ URTEKOA	UNEAN UNEKOA	MINUSBALIATUKO A	EUSKAL HERRIKOA

4. PUNTUA: EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNA

--

Diru kopurua banaketa proportzionalki egingo da jardueren kopuruaren arabera. Oso garrantzitsua da jardueren azalpena.



5. PUNTUA: UDALAK ANTOLATUTAKO EKINTZETAN LAGUNTZEA

Oharra: Datu guztiak ofizialak izan behar dira.